



ZIZURKILGO UDALA

OHIKO OSOKO BILKURARAKO DEIA

Honen bidez, Ez Ohiko Osoko Bilkurarako deitzen dizut:

Eguna: **2012ko abenduaren 20a, osteguna**

Ordua: **19:00**

Tokia: Udaletxeko Osoko Bilkuren Aretoa

EGUNEKO AZTERGAIK

1.- **AURREKO UDALBATZARREN AKTAK ONARTZEA, BIDEZKOA BADA (2012.11.13 eta 2012.12.01).**

2.- **2010eko ETA 2011ko AURREKONTUEN KONTU OROKORRAK ONARTZEA.**

3.- **2012ko AURREKONTUAREN KREDITU ALDAKETA ONARTZEA.**

4.- **“ZIZURKILGO ADUNIBARREKO GI-3282 ERREPIDEAREN ERAGIN GUNEAN UR-ZIKIN ETA EURI-UREN SAREEN HOBEEKUNTZA PROIEKTUA”REN OBREN 2. FASEA EGITEKO PROIEKTU TEKNIKOA ONARTZEA, OBRA KONTRATATZEKO ESPEDIENTEA ONARTZEA, LIZITAZIO DEIALDIA EGITEA ETA ADMINISTRAZIO BALDINTZA ZEHATZEN AGIRIA ONARTZEA.**

5.- **ZIZURKILGO ARMARRIAREN LOGOTIPOA ONARTZEKO HARTU BEHAR DEN ERABAKIA.**

6.- **EUSKAL PRESOEN EGOERARI BURUZ MOZIOA.**

CONVOCATORIA A PLENO ORDINARIO

Por la presente le convoco a la Sesión de Pleno Extraordinario a celebrar:

Día: **20 de Diciembre de 2.012, jueves**

Hora: **19:00**

Lugar: Salón de Plenos de la Casa Consistorial.

ORDEN DEL DIA

1.- **APROBACION, SI PROCEDE, DE ACTAS DE PLENOS ANTERIORES (13.11.2012 y 01.12.2012).**

2.- **APROBACION DE LAS CUENTAS GENERALES DE LOS PRESUPUESTOS DE 2.010 y 2.011**

3.- **APROBACION, DE LA MODIFICACION DE CREDITOS DEL PRESUPUESTO DE 2.012**

4.- **APROBACION DEL PROYECTO TECNICO DE EJECUCION DE LA 2ª FASE DE LAS OBRAS DEL “PROYECTO DE MEJORA DE LA RED DE SANEAMIENTO Y DRENAJE EN LA ZONA DE ADUNIBAR AFECTADA POR LA CARRETERA GI-3228 DE ZIZURKIL”, APROBACION DEL EXPEDIENTE DE CONTRATACION DE LA OBRA, REALIZAR LA CONVOCATORIA DE LA LICITACIÓN Y APROBACION DEL PLIEGO DE CLAUSULAS ADMINISTRATIVAS PARTICULARES.**

5.- **ACUERDO A TOMAR PARA LA ADOPCION DEL LOGOTIPO DEL ESCUDO MUNICIPAL DE ZIZURKIL.**

6.- **MOCION SOBRE LA SITUACION DE LOS PRESOS VASCOS.**



ZIZURKILGO UDALA

7.- ALKATEAREN DEKRETUAK
JAKINARAZTEA (2012/207tik 2012/226ra).

7.- COMUNICACION DE DECRETOS DE
ALCALDIA (del 207/2012 al 226/2012).

8.- GALDE-ESKAKIZUNAK.

8.- RUEGOS Y PREGUNTAS.

Zizurkil, 2012ko abenduaren 18an.

Zizurkil, 18 de Diciembre de 2.012

Alkatea.

El Alcalde.





ZIZURKILGO UDALA

2012ko ABENDUAREN 20an EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTA

ACTA DE LA SESION ORDINARIA CELEBRADA EL DIA 20 DE DICIEMBRE DE 2.012

Partaideak/ Señores Asistentes:

ALKATEA / ALCALDE:

José María Luengo Zapirain Jauna (Bildu)

ZINEGOTZIAK/CONCEJALES:

Eva Usandizaga Mujika (Bildu)

M^a Angeles Lazkano Larrañaga (E.A.J.-P.N.V.)

Leire Zubeldia De Esteban (Bildu)

Alaitz Ormazabal Goenaga (Bildu)

Aitor Sarasua Arruti (Bildu)

Aritz Esnaola Arruti (Bildu)

Aratz Alkorta Irazusta (Bildu).

IDAZKARIA /SECRETARIO:

José Ramón Eceizabarrena Garmendia

Udaletxeko Osoko Bilkuren Aretoan, bi mila eta hamabiko abenduaren hogeiko hemeretzi orduak direnean, Zizurkilgo Udaleko Udalbatza bildu da, Alkate jaunaren lehendakaritzapean eta goian aipatzen diren zinegotzien partaidetzarekin. Nerea Lizarraga Gabirondo (Bildu), Oscar Martínez Orive (P.S.E.-E.E./P.S.O.E.) eta Egoitz Soroazabal Iturain (E.A.J.-P.N.V.) zinegotziak ez dira etorri.

Lehendakaritzaren aginduz bilkura hasi da eta Idazkariak jakinarazi du berau egin daitekeela lege ezarritako quoruma bertan dagoelako.

1.- AURREKO UDALBATZARREN AKTAK ONARTZEA, BIDEZKOA BADA (2012.11.13 eta 2012.12.01).

Udalbatzak aho batez erabaki du 2012ko azaroaren 13an eta abenduaren 1ean egindako Bilkuraren Aktak onartzea.

En el Salón de Sesiones de la Casa Consistorial, siendo las diecinueve horas del día veinte de Diciembre de dos mil doce, se reúne la Corporación del Ayuntamiento de Zizurkil bajo la presidencia del Señor Alcalde y con la asistencia de los Señores Concejales que arriba se citan, no asistiendo los concejales Nerea Lizarraga Gabirondo (Bildu), Oscar Martínez Orive (P.S.E.-E.E./P.S.O.E.) y Egoitz Soroazabal Iturain (E.A.J.-P.N.V.)

Abierta la Sesión de orden de la Presidencia, el Secretario informa que la misma puede celebrarse por concurrir a ella el quórum legalmente establecido.

1.- APROBACION, SI PROCEDE, DE ACTAS DE PLENOS ANTERIORES (13.11.2012 y 01.12.2012).

La Corporación, por unanimidad, acuerda aprobar los Actas de los Plenos celebrados los días 13 de Noviembre y 1 de Diciembre de 2.012



ZIZURKILGO UDALA

2.- 2010eko ETA 2011ko AURREKONTUEN KONTU OROKORRAK ONARTZEA.

Espedientea ikusirik eta jakinda 2011ko ekainaren 1ean Udal honetako Kontuen Batzorde Bereziak 2010 ekitaldiko Aurrekontuaren Kontu Orokorrari aldeko txostena eman ziola.

Espedientea ikusirik eta jakinda 2012ko azaroaren 13an Udal honetako Kontuen Batzorde Bereziak 2011 ekitaldiko Aurrekontuaren Kontu Orokorrari aldeko txostena eman ziola.

Kontuak jendeaurrean jarriak izan ziren 15 eguneko epean eta alegazio edo erreklamazio bat ere ez zen aurkeztu.

Kontuan hartuta, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 63 artikuluari jarraiki, Udalbatzari dagokiola Kontu Orokorrak onartzea.

Azaldutako guztiarengatik, Udalbatzak onartzeko dagokion bozketa egin du, eta hau da emaitza:

- Aldeko botoak: 8 (7 Bildurenak eta 1 E.A.J.-P.N.V.rena).
- Aurkako botoak: 0.
- Abstentzioak: 0.

Beraz, aho batez, Udalbatzak 2010 eta 2011 ekitaldiko Aurrekontuen Kontu Orokorrak behin betirako onartzea erabaki du.

3.- 2012ko AURREKONTUAREN KREDITU ALDAKETA ONARTZEA.

Zizurkilgo Udal honetako 2012ko Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea irakurri da.

2.- APROBACION DE LAS CUENTAS GENERALES DE LOS PRESUPUESTOS DE 2.010 y 2.011

Visto el expediente y resultando que el día 1 de Junio de 2.011 la Comisión Especial de Cuentas de este Ayuntamiento emitió informe favorable sobre la Cuenta General del Presupuesto de 2.010

Visto el expediente y resultando que el día 13 de Noviembre de 2.012 la Comisión Especial de Cuentas de este Ayuntamiento emitió informe favorable sobre la Cuenta General del Presupuesto de 2.011

Expuestas ambas Cuenta al público por plazo de 15 días, resulta que no se han presentado alegaciones ni reclamaciones.

Considerando que es competencia del Pleno la aprobación definitiva de la Cuenta General, a tenor de lo establecido en el artículo 63 de la Norma Foral 21/2003, de 19 de diciembre, Presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

Por lo expuesto, la Corporación procede a realizar la votación correspondiente para su aprobación, con el siguiente resultado:

- Votos a favor: 8 (7 de Bildu y 1 de E.A.J.-P.N.V.).
- Votos en contra: 0.
- Abstenciones: 0.

Por lo que, por unanimidad, la Corporación acuerda aprobar definitivamente las Cuentas Generales de los Presupuestos de los ejercicios de 2.010 y 2.011

3.- APROBACION DE LA MODIFICACION DE CREDITOS DEL PRESUPUESTO DE 2.012

Dada lectura del expediente de modificación de créditos, mediante créditos adicionales que afecta al Presupuesto de 2.012 de este Ayuntamiento de Zizurkil.



ZIZURKILGO UDALA

Idazkari-Kontuhartzaileak egindako txostenak dioenez, aipatutako espedientea aplikagarria zaion araudiari egokitzen zaio, eta zehazki Gipuzkoako Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 34. artikuluan ezarritako beharkizun eta tramiteei.

Era berean, Ogasuneko Batzorde Informatiboak egindako aldeko txostena eta onespen proposamena irakurri dira.

Azaldutako guztia rengatik, Udalbatzak onartzeko dagokion bozketa egin du, eta hau da emaitza:

- Aldeko botoak: 8 (7 Bildurenak eta 1 E.A.J.-P.N.V.rena).
- Aurkako botoak: 0.
- Abstentzioak: 0.

Beraz, aho batez, erabaki du.

Lehen.- Udal honen aurtengo ekitaldiko Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko Kreditu Aldaketarako espedientea onestea, proposamenaren eta Akta honen I Eranskinan argitaratzen den kapitulakako laburpenaren arabera.

Bigarrena.- Jendaurrean ikusgai jartzea, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin-betikotzat joko da. Espediente honi Aurrekontua onesteko ezarritako gainerako tramiteak eman beharko zaizkio.

4.- “ZIZURKILGO ADUNIBARREKO GI-3282 ERREPIDEAREN ERAGIN GUNEAN UR-ZIKIN ETA EURI-UREN SAREEN HOBEKUNTZA PROIEKTUA”REN OBREN 2. FASEA EGITEKO PROIEKTU TEKNIKOA ONARTZEA, OBRA KONTRATATZEKO ESPEDIENTEA ONARTZEA, LIZITAZIO DEIALDIA EGITEA ETA ADMINISTRAZIO BALDINTZA ZEHATZEN AGIRIA ONARTZEA.

Visto el informe emitido por el Secretario-Interventor, quien manifiesta que dicho expediente está ajustado a la normativa que le es de aplicación, en concreto a los requisitos y trámites establecidos en el artículo 34 de la Norma Foral 21/2003, de 19 de diciembre, Presupuestaria de las Entidades Locales de Gipuzkoa.

Visto el informe favorable y propuesta de aprobación formulado por la Comisión Informativa de Hacienda.

Por lo expuesto, la Corporación procede a realizar la votación correspondiente para su aprobación, con el siguiente resultado:

- Votos a favor: 8 (7 de Bildu y 1 de E.A.J.-P.N.V.).
- Votos en contra: 0.
- Abstenciones: 0.

Por lo que por unanimidad, se acuerda:

Primero.- Aprobar el expediente de Modificación de Créditos mediante créditos adicionales que afecta al Presupuesto del corriente ejercicio, conforme a la propuesta formulada y resumen por capítulos que se detalla en el Anexo I de este Acta.

Segundo.- Que se someta a información pública por el plazo de quince días a efectos de reclamaciones. De no presentarse reclamaciones este acuerdo devendrá definitivo, debiendo darse a este expediente los restantes trámites iguales a los establecidos para la aprobación del Presupuesto.

4.- APROBACION DEL PROYECTO TECNICO DE EJECUCION DE LA 2ª FASE DE LAS OBRAS DEL “PROYECTO DE MEJORA DE LA RED DE SANEAMIENTO Y DRENAJE EN LA ZONA DE ADUNIBAR AFECTADA POR LA CARRETERA GI-3228 DE ZIZURKIL”, APROBACION DEL EXPEDIENTE DE CONTRATACION DE LA OBRA, REALIZAR LA CONVOCATORIA DE LA LICITACIÓN Y APROBACION DEL PLIEGO DE CLAUSULAS ADMINISTRATIVAS PARTICULARES.



ZIZURKILGO UDALA

“Zizurkilgo Adunibarreko GI-3282 errepidearen eragin gunean ur-zikin eta euri-uren sareen Hobekuntza Proiektua” – 2. Fasearen lanak egiteko beharra ikusi du Udal honek. Aipatutako Proiektua Sara Prellezo Castro portu, ubide eta bideetako Ingeniariak idatzi du eta bere aurrekontua 377.290,78 euroko da, gehi dagokion BEZa.

Ikusi dira kontratuaren prezioa indarrean dagoen aurrekontuko ohiko sarrearen zein portzentaia den esateko Kontuhartzaileak egindako txostena eta ezarri beharreko Legediaren eta jarraitu beharreko prozeduraren eta kontratua onartu eta esleitzeko organu eskudunari buruz txosten juridikoa.

Espedientean dagoen Baldintza Administratibo Partikularren Plegua ikusi da.

Aurreko guztiagatik, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu bateratuan (3/2011 RDL) 108, 109 eta 110 artikuluetan ezarritakoaren arabera, Udalbatzak onartzeko dagokion bozketa egin du, eta hau da emaitza:

- Aldeko botoak: 8 (7 Bildurenak eta 1 E.A.J.-P.N.V.rena).
- Aurkako botoak: 0.
- Abstentzioak: 0.

Beraz, aho batez, Udalbatzak hau onartzen du:

Lehen.- “Zizurkilgo Adunibarreko GI-3282 errepidearen eragin gunean ur-zikin eta euri-uren sareen Hobekuntza Proiektua” – 2. Fasearen lanak egiteko Proiektu Teknikoa onartzea. Aipatutako Proiektua Sara Prellezo Castro portu, ubide eta bideetako Ingeniariak idatzi du eta bere aurrekontua 377.290,78 euroko da, gehi dagokion BEZa.

Bigarrena.- Proiektu honen lanak esleitzeko kontratazio espedientea onartzea, prozedura ireki, abantailazko eskaintza ekonomiko bidez eta esleipenerako hainbat irizpiderekin. Eta bere lizitazioa deitzea.

Hirugarrena.- Kontratu hau arautuko duten Administrazio Baldintza Zehatzen Agiria

Vista la necesidad de ejecutar obras de la 2ª fase de las obras del “Proyecto de Mejora de la red de saneamiento y drenaje en la zona de Adunibar afectada por la carretera GI-3228 de Zizurkil” – 2ª Fase, según proyecto redactado por la Ingeniero de caminos, puentes y canales Doña Sara Prellezo Castro, con un presupuesto final de 377.290,78 euros, más el IVA correspondiente.

Vistos el informe de Intervención sobre el porcentaje que supone la contratación en relación con los recursos ordinarios del presupuesto vigente y el informe jurídico sobre la Legislación aplicable y el procedimiento a seguir y el órgano competente para aprobar y adjudicar el contrato.

Visto el Pliego de Condiciones Administrativas Particulares que consta en el expediente.

Por todo lo anterior, de conformidad con lo establecido en los artículos 108, 109 y 110 del Texto Refundido de la Ley de Contratos del Sector Público (RDL 3/2011), la Corporación procede a realizar la votación correspondiente para su aprobación, con el siguiente resultado:

- Votos a favor: 8 (7 de Bildu y 1 de E.A.J.-P.N.V.).
- Votos en contra: 0.
- Abstenciones: 0.

Por lo que, por unanimidad, la Corporación acuerda :

Primero.- Aprobar el Proyecto Técnico de “Proyecto de Mejora de la red de saneamiento y drenaje en la zona de Adunibar afectada por la carretera GI-3228 de Zizurkil” – 2ª Fase, redactado por la Ingeniero de caminos, puentes y canales Doña Sara Prellezo Castro, con un presupuesto final de 377.290,78 euros, más el IVA correspondiente.

Segundo.- Aprobar el expediente de contratación, mediante procedimiento abierto oferta económicamente más ventajosa, con varios criterios de adjudicación para las obras del mencionado Proyecto, convocando su licitación.

Tercero.- Aprobar el Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares que regirá el



ZIZURKILGO UDALA

onartzea, prozedura ireki, abantailazko eskaintza ekonomiko bidez eta esleipenerako hainbat irizpiderekin.

Laugarrena.- Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udal web-orriko Kontratatzailearen Profilean argitaratzea lizitazio-iragarkia, hogeita sei eguneko epean egoki iritzitako proposamenak aurkeztu ahal izan ditzaten.

5.- ZIZURKILGO ARMARRIAREN LOGOTIPOA ONARTZEKO HARTU BEHAR DEN ERABAKIA.

2012ko Abenduaren 1ean ospatutako Osoko Bilkuran Udalbatzak udal armarri berri bat onartzeko proposamena onartu zuen hasiera batean.

Orain, udal armarri berri horretan oinarritutako logotipo bat onartzea proposatzen da, erabilera administratiborako.

Proposamena aztertu ondoren, Udalbatzak onartzeko dagokion bozketa egin du, eta hau da emaitza:

- Aldeko botoak: 8 (7 Bildurenak eta 1 E.A.J.-P.N.V.rena).
- Aurkako botoak: 0.
- Abstentzioak: 0.

Beraz, aho batez, hau onartzen da:

Lehenena.- Udal armarri berriaren logotipoa onartzea. Logotipoa Akta honen II Eranskinean agertzen dena da.

6.- EUSKAL PRESOEN EGOERARI BURUZ MOZIOA.

Aurkeztutako Mozioa Akta honen III Eranskinean ikusi daiteke.

Mozioa ikusi ondoren, Udalbatzak hau onartzeko dagokion bozketa egiten du eta emaitza hau izan da:

presente contrato por procedimiento abierto oferta más ventajosa y varios criterios de adjudicación.

Cuarto.- Publicar en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y en el Perfil del Contratante de la página web municipal el anuncio de licitación, para que durante el plazo de veintiséis días puedan presentar las proposiciones que estimen pertinentes.

5.- ACUERDO A TOMAR PARA LA ADOPCION DEL LOGOTIPO DEL ESCUDO MUNICIPAL DE ZIZURKIL.

En Pleno celebrado el pasado día 1 de Diciembre de 2.012, la Corporación acordó aprobar inicialmente la propuesta de adopción de un nuevo escudo municipal.

Se propone ahora la aprobación de un logotipo basado en ese nuevo escudo municipal para su utilización administrativa.

Vista la propuesta presentada, la Corporación pasa a realizar la votación correspondiente para su aprobación, con el siguiente resultado:

- Votos a favor: 8 (7 de Bildu y 1 de E.A.J.-P.N.V.).
- Votos en contra: 0.
- Abstenciones: 0.

por lo que, por unanimidad, se acuerda:

Primero.- Aprobar la adopción del logotipo del nuevo escudo municipal. Este logotipo es el que se muestra en el Anexo II del presente Acta.

6.- MOCION SOBRE LA SITUACION DE LOS PRESOS VASCOS.

La Moción que se presenta es la que se refleja en el Anexo III del presente Acta.

Vista la Moción, la Corporación pasa a realizar la votación correspondiente para su aprobación, con el siguiente resultado:



ZIZURKILGO UDALA

- Aldeko botoak: 7 (7 Bildurenak).
- Aurkako botoak: 0.
- Abstentzioak: 1 (1 E.A.J.-P.N.V.rena).

Beraz, Botuen gehiengoz Mozioa onartua izan da.

7.- ALKATEAREN DEKRETUAK JAKINARAZTEA (2012/207tik 2012/226ra).

2012/207tik 2012/226ra zenbakia duen Dekretuen zerrendaren berri ematen da, 2012ko azaroaren 12tik abenduaren 17ra Alkateak sinatutakoak. Jatorrizkoak, Alkatetzaren Dekretu Liburuan jasota daude eta bertan aztertu daitezke.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

Beste aztergairik gabe, eta hemeretzi orduak eta hogeita hamar minutuak direnean, Batzarra amaitu da eta honetaz guztiaz nik, Idazkariak, fede eta kontu ematen dut.

O.I.
ALKATEA.

Vº Bº
EL ALCALDE.



- Votos a favor: 7 (7 de Bildu).
- Votos en contra: 0.
- Abstenciones: 1 (1 de E.A.J.-P.N.V.).

por lo que, por mayoría, se aprueba la Moción presentada.

7.- COMUNICACION DE DECRETOS DE ALCALDIA (del 207/2012 al 226/2012).

Se da cuenta del listado de los Decretos nº 207/2012 al 226/2012 firmados por la Alcaldía entre el 12 de Noviembre y el 17 de Diciembre de 2.012, cuyos originales se conservan y pueden ser examinados en el Libro de Decretos de Alcaldía.

La Corporación se da por enterada.

Y sin más asuntos que tratar, y siendo las diecinueve horas y treinta minutos, se levanta la Sesión, de la cual, yo, el Secretario, doy fe y certifico.



ZIZURKILGO UDALA

I ERANSKINA -- ANEXO I

KREDITU GEHIKUNTZA-MURRIZKETAK / AUMENTO-DISMINUCION DE CREDITOS

Kapitulua	Izena /Nombre	Hasierako kreditua Crédito inicial	Gutxipena Minoración	Gehikuntza Aumento	Amaierako Kreditua Crédito resultante
1	Pertsonal Gastuak / Gastos Personal	0		12.050	12.050
2	Gastuak Ondasun Arrunt eta Zerbitzuak Gastos Bienes Corrientes y Servicios	18.000 48.000	6.000	55.635	12.000 103.635
3	Finantza Gastuak / Gastos Financieros	90.000	1.500		88.500
4	Transferentzi Arruntak Transferencias Corrientes	140.000 160.000	25.000	35.550	115.000 195.550
6	Inbertsio Errealak Inversiones Reales	196.510 11.500	72.075	73.790	124.435 85.290
8	Finantza Aktiboak / Activos Financieros	0		1.675	1.675
9	Finantza Pasiboak / Pasivos Financieros	280.350		6.150	286.500
GUZTIRA / TOTAL ...		944.360	104.575	184.850	1.024.635

FINANTZATZEN DITUZTEN BALIABIDEAK / RECURSOS QUE LO FINANCIAN

Kapitulua	Izena /Nombre	Hasierako kreditua Crédito inicial	Gehikuntza Aumento	Amaierako Kreditua Crédito resultante
2	Zeharkako Zergak / Impuestos Indirectos	50.000	40.000	90.000
5	Ondare Sarrerak / Ingresos Patrimoniales	500	5.100	5.600
6	Inbertsio Errealak Besterenganatzea Enajenación de Inversiones Reales	0	33.500	33.500
8	Finantza Aktiboak / Activos Financieros	0	1.675	1.675
GUZTIRA / TOTAL ...		50.500	80.275	130.775



ZIZURKILGO UDALA

II ERANSKINA -- ANEXO II





ZIZURKILGO UDALA

III ERANSKINA -- ANEXO III

ZIZURKILGO UDALA
2012 ABE. 1 8
SARREREN ERREGISTROA
Zenbakia 1226

MOZIOA, ZIZURKILGO UDALAREN OSOKO BILKURARI AURKEZTUA

Behean sinatzen duen talde politikoak mozio hau proposatzen dute hurrengo osoko bilkuran onar dadin:

ZIOEN AZALPENA

HERRIRA mugimenduak, Giza Eskubideen Deklarazioaren edukia aintzat harturik, euskal presoei aplikatzen zaizkien espetxe-neurri salbuespenezkoak indarrrik gabe uztea eskatzen du.

Zehazki, sakabanaketa-politikari amaiera ematea eskatzen du, kartzelan dauden pertsonak eskubidea baitute zigorra etxetik hurbil betetzeko. Eskatzen du, bestetik, gaixotasun larria duten hamahiru presoak libre gelditu daitezela, eta Estrasburgoko Europako Giza Eskubideen Auzitegiaren epaia bete dadila, eta beraz, aska ditzatela zigorra bete duten 67 presoak.

Salbuespen neurri hauek sufrimendu handia eragiten dute gizartean, zuzenean neurri horiek jasaten dituztenei, baita gizarte osoari ere, apustu garbia egin baitu bakearen eta giza eskubideen errespetuaren alde. Eta sufrimendu hau buka dadin, neurri hauek desagerrarazteko, aski litzateke legeria arrunta aplikatzea.

Aurten, esate baterako, hamasei istriputan, presoek berrogei bat senitarteko edo adiskidek izan dute kalteren bat, larritasun maila desberdinekoak. Pertsona haietako hiru Zizurkilgoak dira: istripu larria izan zuten joan zen abuztuan, bere aita eta senarra den Mikel Egibar bisita egitera joan ondoren.

HERRIRAK egiaztatu du gehiengo handiak bere egiten dituela aipatutako eskaerak. Horregatik, proposamena egiten die herritarrei giza eskubideen eta bakearen aldeko akordio sozial zabala egiteko, gutxienekoen taula bat presoek eta erbesteratuen problemari heltzeko, modu eraikitzailean eta egiazko konponbideak bilatu nahian betiere.

Eskaera honen atzean gizartea dagoela ikusarazteko, akordio sozial zabal honen ispilu izan dadin, HERRIRA mugimenduak manifestazio handi baterako deia egin du. Mobilizazioa Bilbon izanen da, urtarilaren 12an, goiburu honekin: "Giza eskubideak, konponbidea, bakea. Euskal presoak Euskal Herrira".

Horregatik guztiagatik, **ERABAKI** hauek hartzeko eskatzen diogu Zizurkilgo Udalari:

1.- Espainiako Gobernuari eskatzea presoek eta haien hurbilekoen giza eskubideak errespetatzen dituen espetxe politika aplikatzeko. Neurri hauek zigorra bizilekutik hurbil betetzeko eskubidea eta osasun eskubidea bermatu behar dituzte, baita beraien zigorra bete duten presoek askatasuna eta zigorraren 3/4ak (edo 2/3ak) bete dituztenen baldintzapeko askatasuna.



ZIZURKILGO UDALA

2.- Udalaren kezka adieraztea astebururo presoan senitarteko eta lagunak sufritzen duten arriskua dela-eta, eta elkartasuna adieraztea sakabanaketaren biktima guztiei eta, zehazki, herri honetako bizilagunak diren Mikel Egibar eta Ander Gerestaren hurbilekoei.

3.- Aditzera ematea Udala prest dagoela herriko bizilagun presoan giza eskubideen defentsan lan egiteko, eta haien senitarteko eta hurbilekoen egoera arintzeko.

4.- Horregatik guztiagatik, Udal honek bat egiten du HERRIRA mugimenduak deiturik urtarrilaren 12an Bilbon “Giza eskubideak, konponbidea, bakea. Euskal presoak Euskal Herrira” goiburuarekin egingen den mobilizazio orokorrarekin, eta adierazten du prest dagoela akordio sozial zabal horren alde lan egiteko.

5.- Udal honek erabaki honen berri emanen die herritarrei, eta bakearen eta giza eskubideen errespetuaren aldeko lanean inplikatu daitezen animatuko ditu udalerriko bizilagunak.

Zizurkilgo BILDU Taldea

ZIZURKILGO UDALA **MOCION AL PLENO DEL AYUNTAMIENTO DE ZIZURKIL**

El grupo municipal abajo firmante, para su aprobación en el próximo Pleno, propone la siguiente moción:

EXPOSICION DE MOTIVOS

El movimiento HERRIRA, haciéndose eco de los principios contenidos en la Declaración Universal de Derechos Humanos, pide terminar con las medidas penitenciarias de excepción que se aplican a los presos y presas vascas.

En concreto, solicitan que se ponga fin a la política de dispersión, respetando el derecho de las personas privadas de libertad a cumplir condena cerca de sus lugares de origen. Piden también la libertad de los trece presos y presas que sufren enfermedades graves, así como el cumplimiento de la sentencia del Tribunal Europeo de los Derechos Humanos de Estrasburgo y la puesta en libertad de los 67 presos y presas que han cumplido su condena.

Estas medidas de excepción están provocando un gran sufrimiento en esta sociedad, tanto a las miles de personas que las sufren directamente como a la ciudadanía en general, que apuesta claramente por la paz y el respeto a los derechos humanos. Y para acabar con este sufrimiento, para dejar atrás estas medidas, sería suficiente con la aplicación de la legislación ordinaria.

Sólo en este año, cuarenta familiares y amigos de presos han sufrido dieciséis accidentes de tráfico de distinta gravedad. Tres de estas personas son vecinas de Zizurkil, que sufrieron un grave accidente en Agosto pasado cuando volvían de visitar a su padre y esposo Mikel Egibar.

HERRIRA constata que sus peticiones son asumidas por una amplia mayoría. Por eso, propone a la ciudadanía articular un gran acuerdo social por los derechos humanos y la paz, una tabla de mínimos para abordar el problema de presos y exiliados desde una óptima constructiva y en la búsqueda de soluciones reales.

Para visualizar la pluralidad de esta demanda, para dar cuerpo en la calle a ese gran acuerdo social, el movimiento HERRIRA ha convocado una Movilización General Popular el próximo 12 de enero en Bilbo, bajo el lema "Derechos humanos, solución, paz. Euskal presoak Euskal Herrira".

Por todo lo dicho, solicitamos al Pleno del Ayuntamiento de Zizurkil la adopción de los siguientes

ACUERDOS:

1.- Pedir al Gobierno español la aplicación de una política penitenciaria que respete los derechos humanos de los presos, presas y personas allegadas. Estas medidas deben garantizar su derecho a cumplir condena cerca de su domicilio, su derecho a la salud, así como la libertad de los presos y presas que han cumplido su condena y el acceso a libertad condicional de quienes han cumplido las 3/4 (ó 2/3) partes de su condena.



ZIZURKILGO UDALA

2.- Mostrar la preocupación de esta Corporación por el riesgo que corren los familiares y amigos de los presos y presas todos los fines de semana, así como expresar su solidaridad con todas las víctimas de la dispersión, muy particularmente con los allegados de Mikel Egibar y Ander Geresta, vecinos de esta localidad.

3.- Afirmar la disposición de este Ayuntamiento a implicarse en la defensa de los derechos humanos de sus vecinos y vecinas presas, así como en tratar de aliviar la situación de sus familiares y allegados.

4.- Por lo anterior, este Ayuntamiento se adhiere a la convocatoria de HERRIRA de una Movilización General Popular en Bilbo el próximo 12 de enero, con el lema: “Derechos humanos, resolución, paz. Euskal presoak Euskal Herrira. Y muestra su disposición a dar pasos en la búsqueda de ese gran acuerdo social.

5.- Este Ayuntamiento pondrá en conocimiento de la ciudadanía el contenido de este acuerdo, y animará a todos y todas las vecinas del municipio a que se impliquen en todas las dinámicas por la paz y el respeto a los derechos humanos.

Zizurkilgo BILDU Taldea